

Euskadiko Osasun Sailak eta Gizarte Arazoetako Sailak Lankidetza Akordio bat izenpetu dute ONUSIDA erakundearekin garapen bidean diren erakundeetan GIB/HIESaren aurka borrokatzeko

2007ko otsailaren 12an, Osasun Sailburuak eta Gizarte Arazoetako Sailburuak, Gabriel Inclán eta Javier Madrazok, eta ONUSIDAKo Zuzendari Exekutiboak, Peter Piot-ek Akordio bat izenpetu zuten GIB/HIES epidemiaren aurka borrokatzeko Afrikan eta Ekialdeko Europan.



Lankidetza Akordioaren helburua Eusko Jaurlaritzaren eta ONUSIDAREN artean gauzatzeko ekintza bateratuak sustatzea da GIB/HIES epidemiaren aurkako erantzun orokor bat sendotzeko. Lankidetza honek izaera hirukoitza du:

- ONUSIDAK Ruandan GIBaren arloan garatzen diharduen oinarrizko ekintzak babestea.
- GIB prebenitzeko programetan aholkularitza ematea Ekialdeko Europan, zain barneko bidetik drogak hartzen dituztenentzat.
- Ohitura sexualen analisia egitea Euskal Herriko etorkin kopuru handien sorleku diren herrialde zein eskualdeetan (Latinoamerika, Afrika Subsaharra eta Ekialdeko Europa), gure herrialdean GIBaren sexu bidezko kutsapenaren prebentziorako programak modu eraginkorrago batean planteatu eta gauzatzeko.

Akordio honekin zera lortu nahi da, bi erakundeen esperientzia eta gaitasunak ahalik eta ongien baliatzea eraginkortasun handiago bat lortzeko GIB/HIESaren aurkako borroka globalean.

Akordioaren iraunaldia bi urtekoa izango da, eta horietan 300.000 euro Ruandarako bideratuko dira, GIBak bereziki zigorturiko herrialdea, 130.000 haur aipatu birusaz infektatuak daudelarik. Gainera, aurreikusirik dago profesional sanitarioek zuzenean parte hartzeko posibilitatea. Proiektuak, beraz, barne hartzen ditu, prebentzioko ekintzak ez ezik, asistentziakoak, tratamendukoak eta babesekoak ere.

Ekialdeko herrialdeentzako aholkularitzari dagokionez (Ukraina, Errusia...), horietan nabarmenki ari baita areagotzen GIB epidemia zain barneko bidez drogak hartzen dituztenen artean, Euskadik arlo honetan daukan esperientzia zabala eskainiko du, berak ezarri baitzituen Estatuko beste ezein Autonomia Erkidegok baino lehen xiringak trukatzeko programak GKE, farmazia eta espetxeetan, bai eta hies-aurkako kit programa ere.

Akordioan etorkin kopuru handien sorleku diren herrialdeetako sexu ohituren analisia egitea aurreikusten da, izan ere gaur egun gure herrialdean sortzen diren GIB infekzio berrien %40 inguru kolektibo horietan gertatzen baitira.

Programak gauzatzean sektore askoren erantzunak eta base zabalekoak sustatuko dira GIBaren aurrean, lekuan lekuko kideekin batera lan egingo da Global Task Team erakundearen gomendioen arabera eta era sistematikoan monitorizatuko dira bai ekintzak eta bai berorien emaitzak.

Proposatzen diren ekintzak integratu egingo dira jarduerak gauzatzen diren herrialdeetako GIB/HIES programa nazionaletan, eta bereziki emakume, neskatxa nerabe eta hurrei zuzenduriko eskualdekako GIB programak sustatuko dira. Prebentzio, asistentzia eta tratamenduaren eskuragarritasun inibertsala sustatuko da. Hitzarmena izenpetu zenetik, hainbat harreman mantendu dira Eusko Jaurlaritzako eta ONUSIDAKo teknikarien artean, estrategia egokienak definituz joateko. Aurreikusirik dago udazken honetan bilera bat egitea ekintzak zehaztu eta adosteko.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailak 10